

# ETA EKINTZARA PASATZEN BAZARA?

## Boluntariotza eta parte hartzea garapenerako lankidetzako GKE-etan



### BESTE MUNDU BAT POSIBLE DA!

GGKEok lan egiten dugu giza eskubideak defendatzeko, pobrezia eta desberdinkeria desagerrarazten laguntzeko eta gizartea eraldatzeko:

➔ **Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako herrialde pobretuetan lankidetzaproiektuak** bultzatzen ditugu: hezkuntza, osasuna, nekazaritza jasagarria, azpiegiturak, ekitatea, erakundeak indartu, larrialdiak...

➔ **Euskadin**, instituzioak eta alderdi politikoak presionatzen ditugu neurriak har ditzaten, munduko beste errealtate batzuk erakusten ditugu, bidegabekerien kausen inguruan sentsibilizatzen dugu eta proposamenak egiten ditugu aldaketarako bidean...

Irtenbidearen parte aktibo izan nahi baduzu,  
**GGKE-EN**  
BOLUNTARIOTZAREKIN  
EGIN BAT

### BOLUNTARIOTZA EUSKADIN

Beste herrialde batera bidaiatzea ez da ezinbestekoa GGKE batekin kolaboratzeko.

Munduko aldaketek gertuko eremuan jardutea behar dute. **Bat egin nahi duzu zure herriko edo hiriko GGKE-etako boluntariotzarekin?**



**UPV/EHU** edo **Deusto** unibertsitateetan ikasten baduzu, beste elkartasun-ekimen batzuk dituzu eskura: formakuntzak, graduako, graduondoko eta masterreko praktikak Euskadin zein beste herrialde batzuetan...

### NAZIOARTEKO BOLUNTARIOTZA



GGKE-ek lan egiten duten pobretutako herrialdeetara bidaiak eta esperientziak lankidetzaproiektuak **ezagutzeko, behatzeko, ikasteko** eta beste errealtate batzuek **ohartzeko**.

**Elkartasun brigadak:** Tokiko erakunde sozialekin bidaiak herrien borroka ezagutzeko, elkarreraginerako eta elkartasuna indartzeko.

**Auzolandegiak edo elkartasun- lan-eremuak:** Borondatezko gizarte arloko jarduera beste ekintza osagarri batzuekin konbinatuta.

**Bidaiak edo turismo solidarioa:** Esperientziak erakundearen garapen-egitasmoak laguntzeko eta turismo solidarioa eta arduratsua sustatzeko ohiko ereduaren alternatiba gisa.

**Beste proposamen batzuk:** Lankidetzaproiektuak txiritutako herrialdeetan, Euskadiko erakundeetako beka eta programak...

Webguneko honetako **Kolaboratu nahi?** atalean gure boluntariotza-gida osoa kontsultatu:

[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)



#### Araba

Simone de Beauvoir Elkarleen Etxea  
San Ignacio Loiolakoa 8, 3. 1. bulegoa  
01001 **Vitoria-Gasteiz**  
☎ 945 280 745  
✉ [araba@ongdeuskadi.org](mailto:araba@ongdeuskadi.org)

#### Bizkaia

Erronda z/g (5. zk-ren aurrean),  
3. C bulegoa  
48005 **Bilbo**  
☎ 944 150 300  
✉ [bizkaia@ongdeuskadi.org](mailto:bizkaia@ongdeuskadi.org)

#### Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea  
20001 **Donostia**  
☎ 943 463 526  
✉ [gipuzkoa@ongdeuskadi.org](mailto:gipuzkoa@ongdeuskadi.org)

